

AITA LHANDE ZENAZ

Biarritz, 1994.07.01

Jean-Louis Davant

Zilegi bekit Biarritzeko Udaletxe honetan, baiones handi baten ospatzen hasia. Ezen aita Lhande zena Baionan sortu zen, iragan mendeko hirurogeita hamazazpian, eta hor pasa zituen lehenbiziko zortzi urteak.

Haren biziaz eta obraz, ez dizuet mirarizko apokalipsorik aterako, baina jadanik erranak dizkizuet labur bilduko. Haren jaiotzaren mendeurrena ospatu baikenuen Zalgizen duela hamazazpi urte, aita Lhanderen bizitza nahiko zehazki aipatu nuen; aita Lafittek aldiz, haren obraren bilduma egin zuen. Beraz, bi mintzaldi horien laburpena dizuet hemen emango.

Aitamak zuberotarrak zituen: aita Atarratzekoa, ama Mendikotakoa, baina Montebideon sortua.

Tratulant plantatu ziren Baionan. Komertzioko harremanak bazituzten Elizondo aldean. Horien karietara, aita han gazterik hil zen, eta emazte alargunak senarraren gorpua kontrabandan gibel ekarri zuen. Laster Zalgize Apatian kokatu zen bere hiru semeekin, haietarik gehiena zela Pierra famatua.

Ikasketak egin zituen Mauleko San Frantses instituzioan, eta behin ihes egin zuen handik. Baionako apezgaitegian ere, diziplinaren aldetik lanak zituen, eta lekuak hustu zituen, bota zezaten haiduru egon gabe.

Jesusen Lagundian hobeki konpondu zen eta jesuista egin beraz.

Erakasle egon zen Hernani eta Hondarribiko instituzio batzuetan. Hor gipuzkeraz ongi ikasi zuen, hanbatetaraino non aita Lafittek zioen zubereraz baino hobeki ari zela Probintziako euskalkian.

Puerto Santa Marian ere, erakasle lanetan ihardun zuen.

Bitartean sortuko baita Euskaltzaindia, lehenbiziko hamabi euskaltzainen artean izendatuko dute. Zuberoako euskalkiaren izenean.

Gero, bost urtez (1925-1930), pobre ta txiroen apeza izanen da Parisen eta inguruetan. Eskertzekoa da han egin zuen lan erraldoia, eraiki baitzuen: 52 eliza, 90 gazteen biltoki, 52 parrochia-etxe, 40 eritegi, 12 eskola, 8 haur baratxe ta 14 haurtxotegi.

Ber denboran, Garizumako peredikuak hasi zituen Parisko "Notre-Dame" eliza nagusian, izigarriko arrakastarekin. Hain zuzen, Eliza ama sainduaren altzoan eta magalean ere batzutan gertatzen den bezala, bekaiztu zitzaizkion beste apez ospetsu batzuk.

Beraz, Ameriketara bidali zuten bi urterentzat, hango euskaldunak balaka eta susta zitzala bere dohain bikainez. Baina hark lana hiru hilabetez egin zuen airez aire, ta Parisera zirimolan itzuli zen, arranoa kabiara bezala.

Ber urtetsuetan (1927-1934), irratiz, gaitzeko perediku saila eginen du, "L'évangile par-dessus les toits" deritzana, hots Ebangelioa teilatuen gainetik.

Ber denboran, mundu guzia kurrutuko du gizon horrek, eta nekadura dela, edo Indian bilduko duen eguzki kolpe bat, memoria galduko du bat-batean, berrogeita hamazazpi urteetan; gero ez du osoki arrabilduko.

Ondorioz, bere biziko azken herena zinez mendraturik pasako du Atarratzeko xahar-etxean, hor itzaliko da 1957-an, laurogei urteetan, eta Zalgizen ehortzirik dago.

Haren ondoko zuberotar euskaltzaina, eta nire aitzinekoa, Guillaume Eppherre apeza izanen da.

Zilegi bekit ere aita Lhande zenaz dudan oroitzapen bakarraren aipatzea. 1948.ko uztailaren 9an zen, Mauleko San Frantses instituzioan. Ikasurteko azken eguna zen, eta denbora hartan, handizki ospatzen zuten, ikasle onei sariak emanez. Ikasle gazte nintzen, bigarren mailako klase apalenean.

Urte hartan beraz, hor genituen René Elissabide tokiko kontseilari orokor eta jenerala, eskuindarra, Jean-Pierre Champo Mauleko auzapez sozialista, eta denen buru aita Lhande. Hiruak aldika mintzatu zitzaizkigun. Ez dakit beste biek zer erran ziguten. Baina hark kondatu zigun nola haurtzaroan, Mauleko instituzio horretarik ihes egin zuen. Irripar ederrik egin genuen, bistan dena, harekin bat baikinen horretan, eta gaitzeko izpiritu xorrotxa baitzuen oraino, bultaka.

Gizon lirain eta ernea zen, umoretsua, ile xuria zuen, eta begi urdin argia.

Lhanderen idazkiak hiru zatitan bana ditzakegu, aita Lafitte zenari esker:

- 1.— Euskarazkoak.
- 2.— Euskal gaiez, frantsesez eman zituenak.
- 3.— Beste gai askoz, frantsesez eginak.

1. Euskarazkoak ditu xuhurrenak:

Kopla batzuk, itzulpen bat edo beste, gutun eta hitzaldi bakarren batzuk, *Eskualdun ona* delako astekarian berrixka zenbait zubereraz...

Baina elaberri bat, *Yolanda*, gipuzkeraz argitaratu zuen.

Haren obra nagusiak izan ziren bi urtez kudeatu zuela *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkaria, eta *Dictionnaire basque-français* delako hiztegi handia hasi zuela.

Azken lan eskerga hau, jarrai eta bukatuko zuten Aranart eta Lafitte apezek.

Baina bere itzal ospetsua ekarri zion (eta zien) gure jesuista handiak.

2. Euskal gaiez asko idatzi zuen frantsesez:

- Historiaz, arimaz, etxondoaz, ohidurez, pilotaz, antzerkiaz...
- Olerki, entseiu, elaberri, estudio, artikulu, ikerketa, mintzaldi, eta abar luze bat.

Ez naiz hemen gaur xehetasunetan sartuko. Gehiago jakin nahi duenak aurki ditzake Lafitteren delako mintzaldian, *Gure Herria* agerkiak 77.eko udan atera zuen zenbakian.

Izenda ditzadala halere *La tombe basque*, *L'émigration basque*, eta Larrasquet apezarekin *Etxahun Barkoxekoaz* ondu zuen liburuxka.

L'émigration basque delakoan, Ürrüstoi Baxe-Nabarren emaiten du: denak ezin jakin gizon handi eta jakintsuek ere...

3. **Frantsesez gehiago idatzi du beste gaiez**, bereziki bere apez lanaren ildotik: artikulu, hitzaldi eta elaberriak burrustan, ugari. Hor ere, ikus Lafitte zenaren delako mintzaldi hura.

Bukatzen dut erranez euskaraz ez bazuen askorik idatzi aita Lhandek, euskararen alde gehiago egin zuela frantsesez, eta oroz gaintik, bere itzal erraldoia ekarri ziola, eman dezagun aita Barandiaranek geroztik egingo zuenaren antzo. Beraz goian bego Baionako zuberotar handia.